

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4504

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitira eta, arrantza-enpresei zuzenduta, de minimis araubidean jasotako 2021erako laguntzen deialdia egiten baita, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldiak egiteko aukera izan dezaten (Itsasoratu programa).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin zerikusia duten sektoreetako langileen trebakuntza-politika egokiari eustea. Horregatik, arrantza-sektorearen premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuteko, beharrezkoa da itsas langileen prestakuntza praktikoa sustatzea, eta, oro har, merkatuaren beharretara egokitutako prestakuntza jaso nahi duten guztiena, betiere Europaren eskakizunei egokituta eta aipatutako arrantza-sektorearen mesedetan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera, eta 15.1.u) artikuluan ezarritakoari jarraituz, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren egitekoak dira «nekazaritzarako eta itsas arrantzarako prestakuntza. Nekazaritzarako eta itsas arrantzarako gaikuntza profesionala sustatzea. Kirol-nabigazioko irakaskuntza». Bestalde, 18.1.ñ) artikulua Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari esleitzen dio egiteko hau: «itsas arrantzarako gaikuntza profesionala sustatzea».

Eskumen-esparru horretan, eta lehen paragrafoan aipatutako helburuari dagokionez, laguntza-deialdi hau egiten da, aurreko ekitaldietan hasitako politikari jarraipena ematen diona, eta, bertan, beken deialdia egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan itsas arrantzako irakaskuntza-ikasketak egiteko. Halere, deialdi honek beste hartzaile batzuk eta helburu bat ditu; izan ere, arrantza-enpresei zuzentzen zaie, horiek benetako lanpostuetan, alegia, arrantza-ontzietan, prestakuntza-egonaldiak egiteko aukera eman dezaten. Ondorioz, laguntza hauek bateragarriak izateaz gain itsas arrantzako sektorean prestakuntza arautua sustatzeko ikasleei ematen zaizkienekin, osagarriak ere badira. Horri lotuta, 2019ko ekitaldian, argitara eman zen 2019ko uztailaren 30eko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak ezartzen baitziren eta, arrantza-enpresei zuzenduta, de minimis araubidean jasotako 2019rako laguntzen deialdia egiten, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldiak egiteko aukera izan zezaten, Itsasoratu programa (2019ko irailaren 10eko EHAA, 171. zk.). Alabaina, 2020. urtean, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdia zela eta, ez ziren laguntzak iragarri.

Deialdi honen helburuak dira arrantza-sektorearen errealitatera hurbiltzea, prestakuntza-zikloetako ikasleek beren prestakuntza profesionala, «itsasoko egunak» izenekoak, osatzeko behar duten ontziratzea erraztea, gazteen enplegua sustatzea arrantza-sektorean, flotako langileria gatzetzea, eta, azkenik, belaunaldi-erreleboa bermatzen laguntzea.

Laguntza hauei Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko (EB) 717/2014 Erregelamenduan ezarritako de minimis araubidea aplikatu behar zaie –(EB) 717/2014 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa–.

Autonomia Estatutuaren 10.10 eta 16. artikuluen arabera Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenaren indarrez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legearen arabera, eta Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak proposatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Itsasoratu programako 2021. urterako laguntzen deialdia egitea arrantza-enpresei, ikasleek prestakuntza-egonaldiak egin ahal izateko arrantza-ontzietan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 28a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Eranskin honen xedea da Itsasoratu programako 2021erako laguntzen deialdia arautuko duten oinarri arautzaileak ezartzea. Programa hori arrantza-enpresei zuzenduta dago, itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako ikasleek prestakuntza-egonaldiak egin ahal izateko arrantza-ontzietan.

2.– Agindu honetan araututako laguntzen helburua da prestakuntza praktikoa sustatzea arrantza-sektorearen errealitatean; hori dela eta, erraztu egingo da arrantzako ontzi-konpainiek itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako ikasleak ontziratzea, ontziratze-aldi bakoitzean sortuko dituzten gastuetarako laguntza ekonomikoa emanez.

2. oinarria.– Araubide juridikoa.

Agindu honetan araututako laguntzak, bertan xedatutakoaren arabera ez ezik, honako haue-
tan xedatutakoaren arabera arautuko dira: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko
Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsia; Dirulaguntzei
buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako oinarritzko manuak eta lege hori
garatzeko Erregelamenduan ezarritakoak (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege
Dekretuaren bidez onartu zen), eta, hala dagokionean, haien orde zuzendutako araudia.

De minimis araubidera bildutako laguntzak direnez, Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko
(EB) 717/2014 Erregelamenduan ezarritakoa ere aplikatu behar zaie –(EB) 717/2014 Erregela-
mendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua
arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa–.

3. oinarria.– Onuradunak eta betekizunak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke apartatu hauetako betekizu-
nak biltzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak:

2.– Oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 13. artikuluan
eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bate-
gina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako betebeharrak
betetzea.

a) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Betekizun hori bete
beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko, dirulaguntzaren likidazioa egin
arte, eta, hortaz, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza onartzen denean bai ordainketak
egiten direnean.

b) Dirulaguntzaren onuradun den pertsona fisikoa edo juridiko pribatua krisian den enpresatza-
hartua ez izatea, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregi-
turatzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

c) EAEko Administrazioak edo haren mendeko enteei emandako laguntzei edo dirulaguntzei
dagokienez, itzulketa- edo zehapen-prozeduretako kopuru zehatzen betebeharren ordainketak
egunean izatea. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak
geroratuta edo zatikatuta badaude eta, gainera, bermea eratu bada zor osoa estaltzeko –inte-
resak eta gastuak barne–.

d) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik
edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioaga-

tiko debekuak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoari jarraikiz.

e) Konkurtso-deklaraziorik eskatuta ez izatea, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.

f) Dirulaguntzak lortzeko aukera galdua ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

g) Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik ez eragitea, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.

h) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, horietan ezarritako baldintzetan.

i) Zerga-egoitza ez izatea erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde batean.

j) Berreskuratze-agindu baten mende ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

3.– Espezifikoki, onuradun izateko, betekizun hauetako bat behintzat bete beharko da:

a) Oinarri-portua Euskal Autonomia Erkidegoan duen arrantza-ontzi baten armadorea izatea, betiere baldintza hauek ere betetzen baditu:

- Ontziak Ontzien eta Ontzi Enpresen Erregistroko hirugarren zerrendan egon beharko du.
- Ontziak alta-egoeran egon beharko du Arrantza Flotaren Erregistro Nagusian. Ontzia aktibo dagoela jotzen da, baldin eta Arrantza Flotaren Erregistro Nagusian behin-behineko nahiz behin betiko alta-egoeran badago eta laguntza eskatu aurreko urtean zehar arrantzan jardun badu (aurreko 365 egunak zenbatzen dira edo, aurreko urtea bisurtea bada, aurreko 366 egunak).
- Ontziak arrantza-lizentzia eta behar diren baimenak izan beharko ditu balizko modalitate eta kaletarako.

b) Lan-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

4.– Onuradun izateko betekizunak atxiki beharko dituzte laguntza guztiz justifikatu eta/edo itzuli arte.

4. oinarria.– Ikasleen betekizunak eta hautaketa.

1.– Prestakuntza-egonaldiak egingo dituzten itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako ikasleei betekizun hauek eskatuko zaizkie:

a) Ikasleek erdi-mailako eta goi-mailako ziklo hauetako bateko 1. mailan aritu behar dute ikasten, zentro hauetako batean: «Blas de Lezo» Pasaiaiko Nautika eta Arrantzako Prestakuntza

Zentroa; Bermeoko Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskola; eta Ondarroako Antiguako Ama Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Eskola. Hau guztia eskaintzen dute eskola horietan:

- Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zainketa Antolatzeko goi-mailako teknikaria.
- Itsas Garraioko eta Alturako Arrantzako goi-mailako teknikaria.
- Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzeko eta Kontrolatzeko teknikaria.
- Itsasertzeko Nabigazioko eta Arrantzako teknikaria.

b) Ikasturteko ikasgai guztiak gaindituta izatea, eta justifikatu gabeko bertaratze-faltek ez hartzea ikaslearen eskola-ordutegiaren % 15 baino gehiago.

2.– Prestakuntza-zentroek zerrenda bat egingo dute, non jasoko baitira betekizunak betetzen dituzten eta arrantza-ontzi batean prestakuntza-egonaldiak egin nahi dituztela idatziz adierazi duten ikasleen izen-abizenak. Zerrenda horiek arrantza-enpresen eskura jarriko dira, ikasle bana hauta dezaten, gehienez, egonaldia egiteko. Egonaldia egiteko hautatu den ikaslea emakumea bada, laguntza handitu egingo da 6. oinarrian ezarritakoaren arabera, emakumeek arrantza-sektorean duten presentzia sustatzeko.

5. oinarria.– Prestakuntza-egonaldien ezaugarriak.

1.– Egonaldia arrantza-ontzietan egingo da, bai oinarri-portua Euskal Autonomia Erkidegoan duten arrantza-ontzietan, bai lan-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten armadoreen jabetzako arrantza-ontzietan.

2.– Ontziratzeak marea batek bezainbeste iraungo du: 20 edo 30 egun, gutxi gorabehera, hainbat faktore aldakorren arabera.

3.– Onuradun bakoitzak ikasle bat soilik sartu ahal izango du prestakuntza-egonaldi bakoitzean.

4.– Prestakuntza-egonaldia 2021eko bigarren seihilekoan egin beharko da.

5.– Praktiketako ikaslearen jarraipena eta tutoretza egin beharko dira. Horrek esan nahi du egingo diren eginkizunen hasierako memoria bat egin behar dela, bai eta amaierako txosten bat ere, praktiketako aldia eta ikasleak jarduera hauen arabera ikasitakoa baloratzeko:

a) Enpresa-egitura eta -antolamendua identifikatzea: lan-prozedura enpresa-arloan, prestakuntza-baliabideak eta gaitasun profesionalenak –pertsonalak eta sozialak–, lantokian ezarritako kalitate-sistema eta segurtasun-sistemak.

b) Ohitura etikoak eta lan-ohiturak aplikatzea: jarrera pertsonalak (enpatia, puntualtasuna), jarrera profesionalak (ordena, garbitasuna, segurtasuna...), jarrera lan-arriskuen eta ingurumenaren prebentzioan, enpresako hierarkia, jarduera profesionalen agiriak, barne-arauen ezagutza eta aplikazioa, lan-jarraibideak eta lan-prozedurak.

c) Arrantza-ontzia prestatu eta mantentzea abiatzeko eta nabigazioan zehar: arrantza-ontzia abian jartzeko tramitazioa, itsasontziaren egonkortasuna egiaztatzea, kalak kontrolatzea eta hornidura zehaztea lasta-tankeetan, erregaian eta ur gezan, guneak, bitartekoak, ekipamenduak, etab. berrikustea, nabigazio-ibilbidea trazatzea, abiatzeko komunikazioak, makinaren mantentze-kudeaketa, etab.

d) Nabigazio-kontrola: atrakatu, irten eta ainguratzeko maniobrak, funtzioak brankan, popan, aginte-zubian eta makina-gelan, zubiko guardia egitea, abordatzeak prebenitzeko maniobrak,

zubiko eta itsasbideko tresnetan jardutea, SMSS aparatuak erabiltzeko protokoloak, segurtasun-arauak betetzea, kalitatea eta prestakuntza-erregistroa betetzea.

e) Arrantza-jarduerak: arrantzako instalazioak eta bertako ekipamenduak prestatu, mantendu eta konpontzea, arrantza-bankuak detektatu eta lokalizatzea, maniobrak arrantza-aparailuekin, kalatua, biratzea, desberdintasuna horien arteko aplikazioan arrantza-parkean eta zubian, harrapaketa-eragiketak, harrapaketen merkataritza-interesa eta kalitatea baloratzea, bisitatutako kalen errendimendu jasangarria baloratzea, harrapaketen prozesamendua eta karga gainbegiratzea, arrantza-araudia aplikatzea zereginetan, segurtasun-arauak aplikatzea, etab.

6. oinarria.– Finantzaketa, diruz lagun daitezkeen jarduera eta gastuak; laguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorretan horretarako ezarrita dauden kredituetatik etorriko dira soilik. Baliabide ekonomiko horiek, guztira, 105.000 euro dira.

2.– Diruz lagundu ahal izango da itsas arrantzako prestakuntza-zikloetako lehen mailako ikasleek arrantza-ontzi batean prestakuntza-egonaldia egitea marea batek irauten duen bitartean, hau da, 20 edo 30 egunean.

3.– Diruz lagun daitezkeen gastuak eta zenbatekoak hauek dira:

a) Enpresak ikasle bakoitzari eman beharreko haborokina estaltzetik eratorritako gastuak. Haborokin horren zenbatekoa finkoa da ikasle eta ontziratze-aldi bakoitzeko: 950 euro.

b) Gizarte Segurantzaren alta ematetik eratorritako gastuak; izan ere, arrantza-enpresak bermatu beharko du ikaslea estalita egongo dela egonaldi osoan gertakari arruntengatik eta lan-istripuengatik. Hileko kostua 51,05 euro da, eta horixe da kontzeptu horrengatik ordainduko den zenbatekoa.

c) Prestakuntza-egonaldia arrantza-ontzian egiten duen ikasle bakoitzaren tutoretza eta monitorizaziotik eratorritako gastuak, baita ikasleen mantentze eta aldi horretan itsasontzian egin ditzaketen eginkizunak kontrolatu zein gainbegiratzetik eratorritakoak ere. Zenbatekoa 3.600 euro da, prestakuntza-egonaldi bakoitzeko. Ontziratzen den ikaslea emakumea bada, zenbateko horri 1.000 euro gehituko zaizkio.

d) Ekipamendu eta lan-arroparen gastuak. Gastu horiek finantzatzeko laguntzaren zenbatekoa 150 euro izango da, prestakuntza-egonaldia egiten duen ikasle bakoitzeko.

7. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, 8. oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1051104>

Helbide horretan eskuratu ahal izango dira: eskabide-orria, erantzukizunpeko adierazpenaren eredu eta inprimakien ereduak, bai eta eskaerak modu telematikoan aurkezten eta justifikatzen laguntzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak honako helbide honetan eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

3.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulu hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkari-tza: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua. Ordezkari-tza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan inskribatu ahal izango da, zeina helbide honetan baitago: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>

4.– Eskabidea aurkeztu ondoko izapideak egoitza elektronikokoaren «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egin eta jakinaraziko dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Eskabideak Zuzenean zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahalko dira, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> helbidean, edo aldeztu aurreko hitzorduak eskatzeko edo ezeztatzeko berriarazko telefono-zenbakira hots eginda: 945 01 90 00.

5.– 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan arabera, pertsona fisikoek aukeratu dezakete Administrazioarekin harremanetan jartzea bitarteko ez-elektronikoen bidez; horrela, dagokion eskabide-inprimakiaren bidez eskatu ahal izango dute laguntza, eta inprimaki hori Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren bulegoetan eskura dezakete, ondoren zehazten diren helbideetan, eta www.euskadi.eus helbidean; gero, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzara bidali behar dituzte, zuzenean han agertuta edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen duen edozein bide erabilita. Hona hemen Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzaren bulegoen helbideak:

- Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza. Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

- Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Arrantza Egituren Zerbitzua. Concha Jeneralaren kalea 23, 2 – 48010 Bilbao.

- Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Arrantza Antolamenduko Zerbitzua. Easo kalea 10 – 20006 Donostia.

Eskaera aurkez daiteke, orobat, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan, betiere apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuari jarraituz (72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa).

6.– Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena ematen du Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak zuzenean eskura ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiri guztiak. Hala ere, eskatzaileak horren aurka egin dezake modu arrazoituan; kasu horretan, adierazitako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. oinarria.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Pertsona fisikoa izanez gero, NANaren kopia. Pertsona juridikoa izanez gero, enpresaren IFKren fotokopia, ahalordetze-eskriturarena, legezko ordezkariaren NANarena eta baita erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen fotokopia bana ere, dagokien erregistroan zigitatuta.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatzen baita eskatzaileak agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela, aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla eta 3. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituela, hori egiaztatzeko dokumentazioa duela, eta Administrazioak eskatzen duenean haren esku utziko duela. Era berean, eskaera-ereduko erantzukizunpeko adierazpenak komunikazio hauek izango ditu:

- Diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo ente publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasiera eman zaion edozein itzul-keta- edo zehapen-prozeduratan sartuta dagoen ala ez.
- Eskatzaileak de minimis araubidearen barruan jaso dituen laguntzak, deialdi honen aurreko bi zerga-ekitaldietan edo indarrean den zerga-ekitaldian, kontzeptua edozein delarik ere.

c) Hauek biltzen dituen memoria:

- Prestakuntza-egonaldiak egingo diren ontziaren datuak.
- Prestakuntza-egonaldietarako hautatutako ikasleen datuak, gehienez bi. Ikasle bakoitzak ontziratzeke eta egonaldia egiteko eman duen adostasun-agiria aurkeztu beharko da, bai eta ikastetxeak 4. oinarriko betekizunak betetzen direla ziurtatzeko egin duen agiria ere.
- Prestakuntza-egonaldia egingo den ontzirako aurreikusitako ontziratze-aldian egingo den itsasaldiaren datuak.

d) Eskatzaileak aurkeztu nahi duen edozein dokumentu osagarri.

9. oinarria.– Eskabideen kudeaketa.

1.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu NANA, IFK, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituelako ziurtagiriak. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Eranskin honen 8.a) oinarrian eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatuta badago, eta beti ere eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira. Eskatzaileak adierazi beharko du zein administrazioan eta noiz aurkeztu dituen. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

3.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskabidea eta eskatutako agiriak. Gainera, laguntza-eskaeratik eratorritako jarduketetan eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

4.– Eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; aldez aurretik Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak ebazpena emango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat.

5.– Edonola ere, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak beharrezko jotzen dituen bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko.

10. oinarria.– Laguntzak esleitzeko eta kudeatzeko prozedura.

1.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak du agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Arrantza eta Akuikulturako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute betekizunak betetzen direla, eta berariaz jasota utziko dute hori.

3.– Baldintzak betetzen dituzten arrantza-enpresen arteko lehiarik gabeko konkurrentziaren bidez esleituko dira laguntzak. Baldin eta deialdiko zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada kalkulaturako kopuruak emateko, guztiei emango zaie erabakitako zenbatekoa. Ezarritako gehieneko diru-kopuru globala ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, dirulaguntza hainbanatu egingo da onuradunen artean, harik eta funtsak erabat agortu arte.

4.– Aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertu ondoren, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari dagokio deialdia ebaztea, eta, horretarako, eskatutako dirulaguntzak eman edo ukatzen dituen ebazpen bakarra emango du.

5.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

A) Hautatutako eskaerei dagokienez:

- 1.– Enpresa onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK edo NANA.
- 2.– Emandako dirulaguntza.

B) Onartu ez diren eskaerei dagokienez:

- 1.– Eskatzaileen izena edo izen soziala, eta IFK edo NANA.
- 2.– Laguntza ukatzeko arrazoiak.

6.– Onuraduna zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzulketa-prozeduraren batean egonez gero, hura amaituta izan beharko da dirulaguntza eman ahal izateko. Prozeduraren ondorioz laguntza publikoak jasotzeko desgaitzuntza edo itzultzeko betebeharra ezartzen bada, baldintzapean emandako laguntza indargabetu egingo da, itzulketa ez bada borondatezko aldiaren egiten, onuradun izateko debekua dakarten egoeretako batean egoteagatik.

7.– Agindu honek ondorioak izan eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen espresurik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

Prozeduraren ebazpena, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, EHAA-n argitaratuko da, eta argitalpenak jakinarazpen-ondorioak izango ditu. Dena dela, enpresa eskatzaile guztiei ebazpen osoa helaraziko zaie, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira.

Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

Jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

8.– Prozeduraren ebazpenaren aurka, gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

11. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan jasotako dirulaguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako betebeharrak bete behar dituzte; haien artean daude, besteak beste, xedapen hauetan ezarritakoak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetako betebeharrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluko betebeharrak:

1.– Prestakuntza-egonaldia izatea eskaeran adierazitako eran eta ontziratze-aldietan.

2.– Prestakuntza-egonaldia egin behar duen pertsonari laguntza ematea, eta bere jarduera ongi gauzatzeko behar dituen bitarteko, tresna edo ekipamenduak erabiltzeko aukera ematea.

3.– Programa behar bezala garatzen dela zaintzea; ikasleari ezin zaio eskatu bere prestakuntzarekin lotuta ez dagoen beste jarduerarik egitea.

4.– Prestakuntza-egonaldia egiten duen ikasle bakoitzari 950 euroko haborokina ordaintzea ontziratze-aldi bakoitzarengatik, prestakuntza-aldia amaitu eta astebetara, beranduenez.

5.– Ikaslearen jarraipena eta tutoretza egitea eta 5. oinarrian aipatutako amaierako txostena aurkeztea.

6.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

7.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.

8.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo ente publiko edo pribaturen bati diruz laguntzen den ekintza bera finantzatzeko, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, eman egin dizkietela ere jakinarazi behar diote, idatziz, beste dirulaguntza edo laguntza horiek eman dizkietela jakin eta hamabost eguneko epean.

9.– Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri ematea Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari, idatziz.

10.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

11.– Tratu-berdintasunaren arloko araudian xedatutakoa betetzea.

12. oinarria.– Laguntzak ordaintzea eta gastua justifikatzea.

1.– Laguntzak ordaintzeko, gehienez, hiru hileko epea izango da, frogagiri hauek behar bezala aurkezten direnetik hasita:

- Prestakuntza-egonaldia egin duen pertsonak egindako zereginen eta jardueren txosten zehatza.

- Ikasleei egindako banku-transferentzien kopiak, 11.4 oinarrian jasotako betebeharra egiaztatzen dutenak.
- Gizarte Segurantzako altaren ziurtagiria.
- Dirulaguntzak itzultzegatik dagozkion betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesdunaren zure datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko duzu, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Gastuak justifikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

2.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauden. Hala ere, onuradunak berriaz uka dezake baimen inplizitu hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki irizten badio, eta eskaera hori arrazoitu beharko du.

4.– Laguntzak behar bezala kudeatu eta ordaintzen direla bermatzeko, diruz lagundutako jarduera gauzatu dela justifikatzen duten agiriak aurkezteko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da.

5.– Onuraduna zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzulketa-prozeduraren batean egonez gero, laguntza jasotzeko, lehenik hura amaitu beharko da. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaikuntza badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako laguntza indargabetu egingo da, onuradun-izaera eskuratzeko debekua izategatik.

13. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza-eskatzaileek atzera egin ahalko dute, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskaera helarazi beharko diote Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskaera, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

2.– Onuradunak laguntzari uko egin ahal izango dio, laguntza onartu ondoren ere –agindu honen 11. oinarriko 6. paragrafoan ezarritako betebeharrarekin bat etorriz, emandako laguntza onartzeko betebeharra du onuradunak–, baldin eta Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Uko egiteko asmoa idatziz aurkeztuko zaio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

Ukoa onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

14. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea eta ez-betetzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada edo beste entitate publiko nahiz pribatu batek beste laguntza edo dirulaguntzaren bat eman ez gero, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio idatziz, eta gerta liteke horren

ondorioz dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak bete beharko dira. Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak aldatuta ebazpena emango du, zeinean birdoitu egingo baitira oinarri berriaren arabera emandako dirulaguntzaren zenbatekoak.

2.– Edonola ere, onuradunek ez badute betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, edota dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluekin bat, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak, onuradunek beren betebeharrak ez betetzeagatiko espedientea bideratu eta interesdunak entzun ondoren, dirulaguntza osoa edo zati bat hartzeko eskubidea kenduko die onuradunei, ebazpen bidez, eta, hala badagokio, aginduko die Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul diezazkiotela, guztiz edo partzialki, proiektuaren egikaritze-mailaren arabera, hartu dituzten laguntzak eta dirulaguntzen arloan aplikatu behar diren berandutze-interesak. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera, dagozkion gainerako neurriak hartzea bazter utzi gabe.

Aipatutako diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

3.–Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinarazi behar zaizkio gertakariok, dagozkion zehapen-prozedura has dezan.

15. oinarria.– Bateragarritasunak.

Agindu honetako dirulaguntzak bateragarriak dira edozein entitate publiko zein pribatuk xede berberaz emandakoekin. Hala ere, (EB) Erregelamenduan ezarritako de minimis araubidearekin bat, onuradun batek jaso dezakeen zenbatekoa ez da izango 30.000 eurotik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko epealdi batean; edozein delarik, bai laguntzaren helburua, bai laguntza ematen duen administrazio-organoa.

16. oinarria.– Datuen babesa.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak hitzematen du datuak tratatuko dituela Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako babes-mailaren arabera.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Eskaera

QR: 10511#04

De minimis araubideko laguntzak, arrantza-enpresei zuzenduak, ikasleek arrantza-ontzietan prestakuntza-egonaldiak egiteko aukera izan dezaten; Itsasoratu programa 2021.

Instrukzio-organo hartzailea:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA.

Eskatzailearen datuak

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia

* Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua

Honen izenean ari da

 Pertsona/entitate interesdun gisa espedientean Ordezkaria

Pertsona/entitate ordezkatuaren datuak

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sexua

Ordezkaritza hau eskaera honetarako erabiliko da, eta ez da gordeko Ahalordeen erregistro elektronikoa.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa betez, hurrengo datuak abisuak bidaltzeko erabiliko dira, BAINA ABISUEK EZ DUTE JAKINARAZPENIK EKARRIKO. Jakinarazpena egiteko, nahitaezkoa da egoitza elektronikoa eskura jartzen den ebazpenaren, ofizioaren edo idazkiaren edukia eskuratzea. ABISUA EZ EGITEAK EZ DU ERAGOTZIKO JAKINARAZPENA GUZTIZ BALIOZKOTZAT JOTZEA

* **Telefonoa**

Faxa

* **Helbide elektronikoa**

* **Posta kodea**

Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia *

Udalerrria *

Herria *

* **Helbidea**

* **Zk**

Eskailera

Sol.

Letra

Jakinarazpen eta komunikazioak hona bidaliko dira:

Espedientea tramitatzen den bitartean Administrazioak bidalitako jakinarazpenak honi zuzenduko zaizkio:

Tramitazioan zehar administrazioak bidaliko dizkizun jakinarazpenak Ahalordeen erregistro elektronikoa altan emanda dagoen ordezkariari igorriko zaizkio. Ordezkaririk ez badaukazu, honi:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

Gaur egun posta-datuak dituzu. Hemendik aurrera, zure kontuaren datuak elektronikoki gordeko dira.

Nahiz eta zure kontuan posta-datuak izan, jakinarazpena modu elektronikoa bidaliko dizugu.

Pertsona juridiko baten ordezkaria zarenez, Administrazioarekiko komunikazio kanalak elektronikoa izan behar du.

**Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko kanala aukera dezakezu**

*

Elektronikoa: Nire karpeta_guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko_bat beharrezkoa da.

Postala: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.

Helbidea

Espainia

Posta kodea

Lurralde historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia

Udalerrria

Herrria

Helbidea

Zk.

Sol.

Letra

Beste herrialde bat

Herrialdea

Probintzia

Hiria

Helbidea

Posta-kodea

Kanal elektronikoa gainera: jakinarazpen elektronikoa sartzen ez bazara, jakinarazitzat emango da Nire karpetan eskuragarri jartzen denetik 10 egun naturaleko epean. Esandako epea betetzen denean, jakinarazpena ukatu egin duzula ulertuko da, eta horrela jasoko da espedientean. Izapidea egintzat emango da, eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Abisuak jasotzeko datuak

Nire karpetan jakinarazpen edo komunikazioren bat jasotzerakoan abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera.

* **Posta elektronikoa**

Berretsi posta elektronikoa

Telefono mugikorra

Gogora ezazu: abisua bidaliko zaie, orobat, Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, prozedura honetarako, erankundeko langile gisa jasota daudenei.

Komunikazio hizkuntza *

Mezu elektronikoa eta abisu-mezu bidezko jakinarazpen eta komunikazioak zuk aukeratutako hizkuntzan bidaliko dizkizugu.

Euskara Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut.

Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

🔒 Datuen babesari buruzko informazio oinarrizkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: «Dirulaguntzak arrantza-sektoerako».

- **Arduraduna:** Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena Saila
- **Helburua:** laguntzen jarraipena, kontrola eta kudeaketa
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk
 - MAPA-Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Nekazaritza eta Arrantza Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS).
- **Eskubideak:** eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.
- **Informazio gehigarria:** gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua

(www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001400-cap2-eu.shtml)

**Araudia:**

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Organo kudeatzaile honi zuzenduta:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA ZUZENDARITZA.

Zein lurraldetan daude eskatzailearen datu fiskalak.

Lurralde historikoa: *

Enpresa datuak

* Enpresaren izena

* Izen soziala

* Itsasontziaren izena eta matrikula

Posta kodea

Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia

Udalerrria

Helbidea

Zk

Sol.

Letra

Identifikazio mota *

* NAN/IFK

Telefono finkoa



* Telefono mugikorra

* Posta elektronikoa

* Kudeatzailea

* Harremanetan jartzeko pertsona

* Instruktoea

* Langile kopurua

* Enpresaren ordezkariaren NANA

Ikasle kopurua *

Ikaslearen datuak

* Izena

* Abizenak

Identifikazio mota *

* NAN/AIZ

Jaioteguna *

Sexua *

Emakumea Gizona

Posta kodea

Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia

Udalerrria

Helbidea

Zk

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sol.

Letra

Telefono finkoa

* Telefono mugikorra

* Posta elektronikoa

Ikaslearen datuak

* Izena

* Abizenak

Identifikazio mota *

* NAN/AIZ

Jaioteguna *

Sexua *

Emakumea

Gizona

Posta kodea

Lurralde Historikoa/ Erkidegoa/ Probintzia

Udalerrria

Helbidea

Zk

Sol.

Letra

Telefono finkoa



* Telefono mugikorra

* Posta elektronikoa

Erantzukizunpeko adierazpenak

Aitortzen dut eskatzaileak hauek betetzen dituela:

- Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Aurkezten diren dokumentu guztiak egiazkoak dira.
- Ez da krisian den enpresatza hartzen, betiere krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Erkidegoaren zuzentzarauetan jasotako definizioaren arabera, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentzarauekin bat etorriz (Batzordearen 2014/C 249/01 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).
- Konkurtso-deklaraziorik ez du eskatu, ez dago prozeduraren batean kaudimengabetzat deklaraturik, ez dago konkurtsoan deklaraturik, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren eraginpean eta ez dago desgaituta Konkurtsoari buruzko 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.
- Dirulaguntzak lortzeko aukera ez du galdu ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak..
- Ez du eragin Administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.
- Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izan ez daude Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez dute Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargurik, horietan ezarritako baldintzetan.
- Zerga-egoitza ez dute erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- Ez dago berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.
- 1407/2013 *de minimis* Erregelamendura bildutako laguntzak jaso ditu zerga ekitaldi honetan eta aurreko bietan.

2019ko kopurua

2020ko kopurua

2021eko kopurua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Beste laguntzei dagokienez

Eskaera aurkeztu du eta/edo proiektu horretarako laguntza lortu du, orain arte, jarraian zerrendatzen diren erakunde publiko zein pribatuetan –era berean, proiektu horretarako egiten dituen laguntza-eskaera guztien berri emateko konpromisoa hartu du–.

Bai Ez

Beste dirulaguntza batzuk

Eskaera-data	Erakundea	Programa	Eskaturiko zenbatekoa	Emandako laguntza

Gehitu nahi den dokumentua	Erantsitako dokumentua
Eskatzailearen ordezkari-tza-ahalmenaren egiaztatzea (Ordezkariren Erregistroan alta emanda ez badago).	
Aurreikusitako jardueren memoria	
Enpresaren eratzte-eskritura	
Estatutu sozialak	

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunean datu hauek:

Ofizioz egiaztatzea

Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea (EAEko foru-aldundiak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia)

Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)

Nortasun-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - DGP)

Ez da interesdunaren oniritzirik behar datu hauetara sartu ahal izateko.

Adierazitako datuak erkatu eta beharrezko direnak egiaztatu ahal izango ditu Administrazio publikoak.

_____ (e)n , _____ (e)an

(Tokia)

(Data)

(Pertsona/entitate interesdunaren edo ordezkariaren sinadura)



ESKABIDEA OSATZEKO ARGIBIDEAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Zure izenean ari bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu titularrari dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona edo entitate baten ordezkaria bazara:

- *Identifikazio datuak* atalean, bete itzazu ordezkatzeko duzun pertsonari dagozkion datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Erakundeak ordezkari bidez aritzen dira beti.

Identifikazio-dokumentua

Zehaztu dokumentu-mota: NAN, IFK, AIZ, pasaporte edo bestelakoren bat.

KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENETARAKO KANALA

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

- *Posta bidezkoa*: atal honetan jarri duzun helbidera igorriko dira.
- *Elektronikoa*: Nire karpeta guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, onartutako ziurtagiri elektronikoa bat izan behar duzu.

10 egun naturalean jakinarazpen elektronikoa batera sartzeko ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

ABISUAK JASOTZEKO DATUAK (JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO BAKARRIK)

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa jasotzea aukeratu baduzu, helbide elektronikoa eta SMS bidezko abisu-sistema erabil dezakezu. Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman nahi izanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez (:).

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Eskatzaileak aitortzen du, bere erantzukizunpean, adierazpen hauetan azaltzen diren datuak benetakoak direla.

Administrazioak prozedurarekin ez jarraitzea erabaki dezake datuak zehatzak ez badira, zerbait nahita esan gabe geratu bada edo faltsuak badira. Horrek ez du eragotziko izan daitezkeen bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboek aurrera egitea.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak azken xedapenetako seigarrenean dioenaren arabera).

Egunean ditu indarrean dauden arauak ezartzen dituzten zerga-betebeharrak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berriazko baimenik gabe egiaztatu ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak).

AURRETIK AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

Nahitaezko datuak dira: dokumentuaren izena eta zein organotan entregatu zen.